



39. XABIER LIZARDI

HAUR LITERATURA SARIA

1.- BALDINTZAK

- 7-12 urte arteko irakurleentzat.
- Jatorriz euskaraz idatziak.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste lehiaketetan saritu gabeak izango dira.
- Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.

2.- EZAUGARRIAK

- Lanaren luzera 22.000-34.000 karaktere bitartekoa izango da.
- Ordenagailuz idatziak, letra-mota: Times New Roman, Arial edo antzeko bat, lerro artean tarte bikoitza.

3.-AURKEZPENA

Bi aukera daude:

- **Posta bidez:**

Lanak izengoitiz sinatuko dira. Aparteko gutun-azal itxi baten barruan izen-emate orria sartuko da, osatuta eta sinatuta.

Ziurtatutako gutunean bidaliko dira.

Xabier Lizardi Literatur Sarirako dela adieraziko da.

Bidali:

Zarauzko Udala – Kultura Departamentua
Sanz-Enea Kultur Etxea
Nafarroa kalea 22. 20800 Zarautz

- **Posta elektronikoz:**

Bi pdf artxibo bidaliko dira kultura@zarautz.eus helbidera.

1.- Ipuina. Dokumentuaren izena: lanaren izenburua eta, parentesi artean, egilearen izengoitia.

2.- Izen-emate orria osatuta eta sinatuta.

Dokumentuaren izena: egilearen izengoitia

4.- LANAK AURKEZTEKO EPEA

2021eko urtarrilaren 29an.

5.- SARIA

Saria bakarria izango da, 4.000 eurokoa. Epaia 2021ko apirillean emango da jakitera.

Sariaren diru kopuru honek indarrean dagoen legedian ezarritako atxikipena izango du.

6.- SARI BANAKETA ETA LAN SARITUAREN ARGITALPENA

Ipuin saritua argitaraziko du Zarauzko Udalak, saria ezagutzera ematen denetik sei hilabeteko epean, marrazkiez ederturik. Alabaina, idazlea izango da lanaren jabea eta ohiko moduan ordainduko dizkio argitaletxeak egile-eskubideak.

Argibide gehiago:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2020/11/06/c2005616.pdf>